



**THIEVERY CORPORATION**

white collar theft goi mailako ebasleak

urria | azaroa  
october | november

06

the balde



0€

# 06



## the balde

marzelo zelaieta 75  
13. bulegoa  
31014 iruñea

t. +34 948. 12.19.76  
info@thebalde.net

publi@thebalde.net  
m. +34 686.48.59.76

www.thebalde.net

**argitaratzailea / publisher:** eragin. komunikazioa eragin sll  
**editore / editor:** iñigo martínez

**zuzendari / director:** césar ekisoain

**zuzendari komertziala /commercial director:** arkaitz billar  
**publizitatea / publicity:** idoia artxanko

**talde eragilea / promoters:** koldo almandoz, arkaitz billar, césar ekisoain, martin etxauri, unai abarzuza, txuma vazquez, iñigo martinez  
**diseinua / design:** martin etxauri, unai abarzuza, txuma vazquez  
sonia beroiz, juan luís napal, maku oruezabal

**itzulpenak/ translations:** smiley, miren etxenike

**ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue:** kirmen uribe, asier leoz, koldo almandoz, ibon salaberria, makala, blanca oría, juan zapater, xabi sagardia, berta osés, maría solana, itziar suárez, jon benito, armando santos

**ale honetako argazkilariak / photographers this issue:** uxue montero, mikel urmeneta, galder izagirre

**ale honetako komikia / comic this issue:** napal

**inprimategia / printed at:** espacegrafic

**lege gordailua / legal:** na-3244/01



## MY GOD! BUT AREN'T THE MINISTERS



### NO DOUBTS ABOUT THE SHELL

The Gold Shell at this year's 50th Festival has gone to those who sunbathe on Mondays. This year, unlike others, there have been no polemic awards. The film is a just winner. Berlin awarded the film that evoked Ireland's "Bloody Sunday", Cannes did the same with "Le Pianiste", a film that refuses to let us forget the nazi holocaust, and Donostia has given the prize to a film about people on the dole. My god! but aren't the ministers from each country and multinational media that support these film festivals becoming super-duper lefties!!

[www.sansebastianfestival.com](http://www.sansebastianfestival.com)

### EZBAIRIK GABEKO MASKORRA

Donostiako 50. Zinemaldiak, urrezko maskorra, astelehenetan eguzkia hartzen dutenei eman dio. Aurreko urteetan ez bezala aurtengoa ez da sari polemikoa izan. Filmak gainera merezi du. Berline Irlandako "Bloody Sunday" hura oroitzen duen filma saritu zuten, Cannes-en nazien holokaustoaren oroigarri den "Le Pianiste" eta Donostian langabetuen istorio bat. Zein progreak bihurtzen ari diren herrialde ezberdinetako ministerioak eta komunikazio multinazionalak sostengatzen dituzten Zinemaldiak!!!

[www.sansebastianfestival.com](http://www.sansebastianfestival.com)



### BETH GIBBONS ETA PORTISHEAD, ITZULIAK

Portishead talde ingelesak prest dauka bost urteko isiluneari amaiera emango dion lan berria. Diskoaren izenburua "Alien" izango da eta antza denez iraungo duen ordu beteaz gain multimedia lan emaitzak bilduko dira ere bertan. Hori baino lehenago taldeko abeslaria den Beth Gibbons-ek bere bakarkako diskoa plazaratzeko asmoa dauka, "Out of season", urriaren 28an.

### BI HARRIBITXI

Donostiako Zinemaldiko Zabaltegi sailean ikusitakoan artean bi harribitxi. Dokumental sailkapen pean jartzen dituztenak dira azken urteotan arrisku gehien hartzen duten pelikulak "24 hour party people": 70ko hamarkadako amaieratik 90ko hamarkadako Manchester protagonista. "Joy Division", "New order", "Happy Mondays": Musika eta Estasi bidaia. Umore beltza eta ironia. Kamiseta beltzak eta pikodelia. Hiri eta garai bati ezer ezkutatu gabe eginiko errepasso maitagarria.

"Bowling for Columbine": 1999. Columbine High School. Eskolara armaz josita sartzen den ikaslea. Pelikula hasi da. Ahalik eta jende gehien akabatu beharra dago. Bonus. Irakasleari tiro buruan. Baina partida orori iristen zaio game over-a. Bowling for Columbine AEBtako biztanleek armekin duten harreman bitxia islatzen duen pelikula. Umore garratz eta probokatzailea. Tiro bat munduko demokrazia handienaren bihotzean.



### THE RETURN OF BETH GIBBONS AND PORTISHEAD

Portishead have just finished work on the album that will an end to five years of silence. The record will be called "Alien" and they say that it lasts up to an hour and that there be multimedia bits and pieces thrown in as well. Before that happens, however, the singer of the band, Beth Gibbons, intends to release a solo album called "Out of Season" on October the 28th.

### TWO GEMS

We came across two gems amongst the films we saw in the Zabaltegi Section at the Donostia Film Festival. The films that are classified as documentaries are the films that seem to be the ones most willing to take risks lately.

"24 hour party people": from the end of the 70's to the start of the 90's Manchester was the focus of everybody's attention. "Joy Division", "New Order", "Happy Mondays"; music and ecstasy. Black humour and irony. Black shirts and psychedelia. A lovable re-visit to a time and city, warts and all.

"Bowling for Columbine": 1999. Columbine High School. A student goes to school armed to the teeth. The film has started. The student has to kill as many others as possible. Bonus. A teacher gets shot in the head. But all games have their game over. Bowling for Columbine is a film about the strange relationship that exists between Americans and guns. Provocative and slashing humour. A shot straight to the heart of "the world's biggest democracy".

## TIRO BAT «MUNDUKO DEMOKRAZIA HANDIENAREN BIHOTZEAN»



#### THE BALDEREN AURKEZPEN FESTA KAFE ANTZOKIAN

The Balderen 6. zenbakia aurkezteko Bilboko Kafe Antzokian antolatu dugun festara gonbidatzen zaitugu. Urriaren 24an izango da festa eta bertan Selektah Kolektiboa eta Desmond Williams (Thievery Corporation-eko ohiko kolaboratzailea) arituko dira. Aurkezpen festa 22etan hasiko da. Jaian zehar Red Musicalek eskainita Thievery Corporation taldeko azken diskoaren ale batzuk zozketatuko dira. Ongi pasa!  
[www.thebalde.net](http://www.thebalde.net).

## THE BALDEREN 6. ZENBAKIA AURKEZTEKO BILBOKO KAFE ANTZOKIAN ANTOLATU DUGUN FESTARA

#### THE BALDE PRESENTATION FEST

You are all invited to a party on the 24th of October to celebrate the launch of The Balde Issue No. 6. Selektah Kolektiboa and Desmond Williams are on the bill. The whole shenanigans will kick off at 22:00. Several copies of Thievery Corporation's latest album, provides by Red Musical, will be raffled at the do.

#### 300.000

AEBtako zientzilarien ustez ordenagailu kantitate hau behar omen da genomak deskodetzeko eta gaixotasunen funtsezko proteinak ikertzeko. Genome@home programa hau ordea ez da zure, gure ordenagailuaren memoriaren zatitxo bat erabiltzen lehena (Seti@homek, adibidez, bizitza estralurtarra topatzeko saiakeran dabil oraindik). 300.000 ordenagailuen afera da eragile bat instalatu ondoren zure ordenagailuak datu batzuk jasotzen dituela konektatzen zarenean, eta hauek prozesatu ondoren, berriro bidaltzen dituela bueltan. Hala ere, guzti hau koordinatzeko erabiltzen dituzten ordenagailu itzel hauen portzentaia txiki bat bakarrik erabiltzen dute genomaren ikerkuntzarako, gainontzekoa ikerkuntza nuklearretarako erabiltzen ei dute.

<http://setiathome.astroseti.org>  
<http://gah.stanford.edu/>



#### 300.000

According to a group of scientists in the USA, that's the number of computers needed to be able to decode genomes and research the vital proteins for illnesses. The Genome@home programme is not the first to use a bit of your/our computers' memory (Seti@home, for example, is still trying to find extraterrestrial life). The story behind the 300,000 computers is that once you've installed a driver, your computer receives data every time you connect. After the data has been processed, it is returned from whence it came. All the same, they only use a fraction of the capacity of the huge computers they use to coordinate all of this; the rest of the capacity is used for nuclear research!

<http://setiathome.astroseti.org>  
<http://gah.stanford.edu>

## 3.000 LAGUN BAINO GEHIAGOK EMAN ZUTEN IZENA, IZENA ALDATZEKO

#### MY NAME IS TUROK

Publizitate eta marketingaren arloan dena ikusita genuela uste bagenuen ere, hona Simeon Cantrell, Merkatutekniako britaniar Institutukoak, Acclaim UK bideojokuak garatzen dituen enpresarako prestatu duen kanpaina. Estrategia benetan berritzailea: Zure izena izen komertzial baten ordean aldatzea diru sari baten truk. Acclaim UK enpresak 770 euro eskaintzen ditu erregistrora joan eta jaiotzetik izan duzun izena urte batez aparkatu eta Turok izenarekin zure burua berriro batailatzen baduzu. Diruaz gain, X-Box bideo-kontsola bat eta Turok sailaren jostailu guztiak ere eskuratuko dituzu. Kanpaina martxan jarri eta ordu gutxitara 3.000 lagun baino gehiagok eman zuten izena, izena aldatzeko hain zuten.  
[www.mynameisturok.co.uk](http://www.mynameisturok.co.uk)

#### MY NAME IS TUROK

Just when you thought that we'd seen everything there was to see in the world of publicity and marketing, along comes Simeon Cantrell from the British Technical Institute of Marketing with his campaign for the video-game producer Acclaim UK. His strategy is really innovative: you get paid for changing your real name to a commercial name. Acclaim UK offer you 770 euro if you go along to the registry and the change the name you have had since birth and re-name yourself Turok. As well as the money, you also get an X-box games console and all the games based around the character Turok. Within a few hours of starting the campaign, more than 3000 people gave their names.  
[www.mynameisturok.co.uk](http://www.mynameisturok.co.uk)





- 05.10 **MISSTRESS BARBARA** (RELENTLESS/CAN)  
**CRISTIAN VARELA** (SERIAL KILLER/ESP)  
**+ PABLO GUADALUPE** (PERCUSIÓN)
- 11.10 **STACEY PULLEN** (BLACK FLAG/USA)  
**CLAKE BAXTER** (BLACK FLAG/USA)  
**GAYLE SAN** (EQUATOR/SIN)
- 12.10 **SLAM** (SOMA/ESCOCIA)  
**PASCAL FEOS** (COCOON/GER)  
**JOHN ACQUAVIVA** (DEFINITIVE/CAN) >>
- 19.10 **CRISTIAN SMITH** (TRONIC MUSIC/USA)
- 26.10 **OSCAR MULERO** (WARM UP/ESP)
- 31.10 **DERRICK MAY** (TRANSMAT/USA)



**FLORIDA**

FLORIDA 135 FRAGA, HUESCA - 974 470 250  
 E-MAIL: FLORIDA@FLORIDA135.COM  
 WWW.FLORIDA135.COM





OCTUBRE  
 1 2 3 4 5 6  
 7 8 9 10 11 12 13  
 14 15 16 17 18 19 20  
 21 22 23 24 25 26 27  
 28 29 30 31

<b>PAMPLONA</b> A-68	<b>HUESCA</b> C-131	EX TRANSVERSAL	<b>GIRONA</b>
<b>ZARAGOZA</b> N-330	<b>FRAGA</b> A-7	AUTOVIA	<b>BARCELONA</b> A-7
<b>TERUEL</b>			<b>TARRAGONA</b> A-7
			<b>CASTELLO</b>

**VENTA ANTICIPADA BARCELONA** DISCOS PLÁSTICO 932 927 570  
**LEIDA** MANHATAN RECORDS 973 241 794 **TARRAGONA** SPOOK  
 RECORDS RELS / CODIGO RECORDS 977 254 735 / 977 224  
 176 **ZARAGOZA** DISCOS LINACERO 976 221 097 / LINACERO  
 DELICIAS 976 341 095 / LINACERO GRAN VIA 976 232 242 /  
 MAMBO RECORDS 976 238 116 **LA RIOJA** KOVASKY 941 148  
 163 / DISCÓRULO 941 251 974 **HUESCA** DISCOS COCODISK  
 974 225 149 **FRAGA** RADIO FRAGA **MADRID** MADRID ROCK  
 915 210 239 / RC899 RECORDS 912 225 058 **NAVARRA** SUITE  
 RECORDS 948 291 366

MAILING 135: SI QUIERES FORMAR PARTE DE NUESTRO MAILING Y RECIBIR INFORMACIÓN DE FLORIDA 135 MANDA TUS DATOS A: FLORIDA 135, C/ SOTET 2, 2º B 22520 FRAGA, HUESCA / RESIDENCIAS: ROBERT LAMART, CARLOS PALACIOS, MIKE TUNA / RESIDENCIAS HABITUALES: JOHN ACQUAVIVA, FRANCESCO FARFA, JIM MASTERS, TONY VERDI, ANGEL MOLINA / INFO BUS: SALIDAS DESDE DIVERSAS CIUDADES 974 470 250 / HOTEL CASANOVAS: PRECIOS ESPECIALES 974 470 150 / ES UNA PRODUCCIÓN FT35 EN COLABORACIÓN CON ADVANCED MUSIC / DISEÑO TXARY BROWN + ILUSTRACIONES BLAMI

Dewar's.  
 "White Label."



zure galderei  
 erantzuna  
**zientzia.net**  
 www.zientzia.net

# JAPONIAR ESPERIENTZIAK 1

testua / by: ibon salaberria

Vicente Díez Faixat:

Madrileko Arkitektura Eskolako eraketako urteak Kenzo Tangeren eta orduan modan zeuden japoniar Metabolisten lanen aurkikuntza pertsonalak nagusituta igaro ziren. Honek, ezinbestez, lan hauek posible egiten zituzten jatorri kultural-arekiko interesa ekarri zuen. Kyoton, Norihiko Dan arkitektoaren estudioan izandako lehenengo lan esperientziaren ondorioz sortu ziren hurrengo lanbide harremanak, hitzaldiak, batzarrak, erakusketak, lankidetzak, trukeak Kyotoko Unibertsitateko irakasle gonbidatu gisa, etab.

## JAPANESE EXPERIENCES 1

Vicente Díaz Faixat:

His years of formation at the Madrid School of Architecture were marked by his discovery of the work of Kenzo Tange and the Japanese Metabolists in vogue at the time. This led to his interest in the cultural origins that made them possible. As a consequence of his first work experience in the architect Norihiko Dan's studio in Tokyo, there were further professional contacts, conferences, exhibitions, collaborations and exchanges as a professor invited over to Japan by the University of Kyoto.

The Balde: Japoniar hiri bat, Tokio bezalako japoniar hiri bat, kanpotik, kaosaren paradigma bezala ematen zaigu ezagutzera. Nolakoa da, benetan, japoniar hirira heltzearen esperientzia?

Vicente Díez Faixat: Bai, kaosaren sentsazioak hartzen zaitu lehenengo momentutik, erabateko hiri-egitasmo gabezia ikusten da, kale guztiak linea elektrikoetako aireko sareez axolagabeki zeharkatuak ikusten dituzu, ezerk ez zaitu harritzen nahasketa heterogeneo hartan, non egurrezko tenplutxo baten alboan altueran nabarmenak diren altzairuzko eta beirazko eraikuntzak dauden... Hala ere, hiria bestearekiko pribatutasunean oinarritutako errespetu kultural ikaragarriarekin, estuki, lotuta dago, ez da ikusten begiratzen ez dena. Gizalegez, aldi berean diren banakotasun kaotikoen multzo bat da. Eguneroko eredu bat hiriko helbide bat zehaztasunez aurkitzeko ezintasuna da. Hau japoniarrek jolas bat izango balitz bezala bizi dute. Kaleek ez dute izenik, atariak ez dute zenbakirik eta erreferentzietan eta hiriko gunen garrantzitsuetan oinarrituta funtzionatzen da: honen ondoan, haren atzean...

The Balde: A Japanese city like Tokyo is often defined to us, people outside Japan, as the paradigm of chaos. What is it really like when you get there for the first time?

Vicente Díez Faixat: Yes, the city really does swallow you up when arrive. There doesn't seem to have been any type of urban development planning. You see all the streets negligently criss-crossed by electric cable everywhere. Nothing about that heterogeneous mix surprises you. I mean, you can find a wooden temple flanked by huge glass and steel skyscrapers. All the same, the city is closely tied to an enormous cultural respect for one and another's privacy. You don't see what you don't look at. It's a huge chaotic gathering of mutually respecting individuals. One everyday example is the near impossibility of finding an exact address. It's a game to the Japanese. The streets don't have a name. The doors don't have consecutive numbers. Everything works around references and urban landmarks; next to, behind...



Gure hirien eta japoniar hirien artean dagoen desberdintasunik nabarmenetarikoa "berriaz" eta "antzinakoaz" elkarrizketan aritzeko modua dela uste al duzu? Badirudi japoniar hirietan aldi bereko izateak ez duela inolako dilemarik sortzen monumentu edo aurrri eta sorkuntza garaikidearen artean.

Japoniar gizartea nagusiekiko errespetuaren arabera eta haurtzaroarekiko kultuaren arabera egituratua dago, badirudi ia tarteko belaunaldientzako lekurik ez dagoela...eta ez dago inolako arazorik antzinakoena berrienarekin aldi bereko edo aldi berean izateko. Arkitektura, bere aldetik, mendebaldeko kulturaren nabarmena den, iraunkortasunaren borondaterik ez du inoiz izan, han "monumentu" historiko deitzen dugun kontzeptua ere ez da: denbora ziklo moduan bizi dute, keinu erritualak errepikatzearen bidez etengabe egiten ari den zerbitu bezala. Japongo "monumentu" paregabe antzinakoena, Ise-ko santutegi shintoista, VII. mende bukaerakoa, 20 urtean behin osoki berreraikitzen da, tradiziozko eraikuntza metodoen arabera.

Duela urte batzuk Gijoneko egunkari batentzat hau idazten zenuen: «Wabisabirako bidea motela, zaila, zorrotza, bizia da». Japoniarra bezalako gizarte "bizkor" batek nola aurre egiten dio interpretazio tradizionalaren eta XXI. mendeko funtzionamendu azeleratuaren arteko kontraesan nabarmenari?

Mendebaldeko eta ekialdeko pentsamenduaren arteko desberdintasunik handienetarikoa hemen "aurkakoen kontraesana" deritzon horretan datza. Guretzat gauzak dira ala ez dira eta tarteko terminorik ez da: txuria edo beltza da. Japoniarrentzat, ordea, dena da eta, aldi berean, ez da, modu zalantzarik, grisen gama mugagabe baten arabera. Horrexegatik, guk kontraesana moduan ulertzen duguna ez dago: garaikidea eta tradiziozkoa, eritmo patxadatsua eta azkartasun estresagarriena, aldi berean, aldi bereko izan daitezke, inolako arazorik gabe; eta agenda korapilatsua duen exekutiboak bere etxera gauaz iritsi, harlaxean zapatak erantzi, eta bere hiritar bizimoduaren eritmo dardaratsua utzi ondoren, goroldioa duen harriari edo urmalean dagoen karpari so eginez gozamenean murgiltzen da.

Do you think that one of the main differences between our cities and Japanese ones is the relationship between "the new" and "the old" ? There seems to be no dilemma in Japanese cities when it comes to the co-existence of a monument with a ruin or a contemporary building...

Japanese society is built around its respect for the elderly and its cult of infancy. There hardly seems to be any space left over for the generations in between...and there's no problem whatsoever in accepting the existence of the oldest with the newest. As far as architecture is concerned, well, there was never this idea of permanency that dominates in the West. They don't have our concept of a "historical" monument either. Time is lived out in cycles. It's something that is permanently carried out through ritual repetition of gestures. The singular most ancient "monument" in Japan, the Shinto Sanctuary in Ise that dates from the VII Century, is totally rebuilt every twenty years using traditional construction methods.

You wrote in a newspaper in Gijon a few years ago that: «The way of wabi-sabi is slow, difficult, demanding and intense». How does such a hectic society like the Japanese one deal with the notable contradictions between traditional interpretation and the accelerated pace of life in the 21st Century?

I think one of the biggest differences between the western way of thinking and the oriental way lies in what we denominate "the contradiction of opposites". We view things as "they are or they aren't" and there is no middle ground. It's black or it's white. For the Japanese everything "is and isn't" at the same time. A bit ambiguous if you like, but they've got this "unlimited range of greys". Therefore, contradictions as we understand them don't exist in Japan: you have the contemporary and the traditional, the most stressful rhythm of life exists hand in hand with its opposite laid-back form, no problem at all. The business executive with the most hectic of diaries gets home at night, takes their shoes off on the doorstep, leaves them there along with the hair-raising pace of the day behind them and gets lost in the pleasures of contemplating a moss-covered stone or a carp in a fish-tank.



Japoniar tradizioak "engawa", "ma" edo "wabi-sabi" bezalako kontzeptu abstraktueta oinarritzen dira eta gurea bezalako "hitze" kulturetan zailak dira interpretatzen, baina japoniar arkitekturaz ezagutzen dugun "estetika"ri balioa ematen diotenak dira...

Egia da mendebalderantz eta "american way of life"-rantz begira dauden japoniar belaunaldi berrientzat kontzeptu nahikoa ezezagunak direla... baina oinarri kultural baten zati dira, agian haiengan inkontzientea. Oinarri hau Norihiko Dan, Shigeru Ban, Kazuyo Sejima bezalako arkitektoak edo beste batzuk berreskuratzen ahalagintzen dira eta Mendebaldean ikasi duten guztia elkarriketan jartzen ere bai. "Japoniar" gisa izendatzen dugun irudi idealizatua ere ez dator bat egun duten eguneroko errealitatearekin. Errealitate kargatuegia, neoeie argiztatua eta ispiluz josia, pachinko-ko lokalak Kitsch-a... Mendebaldeko minimalismoak badirudi zen-era eta uko egitera bidali nahi gaituela, Erdi Aroko monasterioetako arte erromanikoarekin ere zerikusia duen diseinu soila. Pentsamendu japoniarra sentsazioen estetika batean biziki sakontzera iritsi dela da desberdintasuna.

Zuen estudiotik Takayuki Miyoshi (egun Toyo Ito-ren lankidea) edo Norihiko Dan bezalako japoniar arkitekto batzuekin lankidetzara izan duzue. Nolakoak izan dira ideiak trukatzearren esperientziak, japoniarra bezalako kultura batekin?

Adiskidetasun sakon batean eta ongi etortze batean oinarritutako etengabeko elkarriketa prozesu baten partaidetza da. Askotan galdetzen digute nola bereizi daitekeen esku japoniarra edo esku europarra gure lankidetzara lanetan... eta, egia esan, elkar gurutzatzen direla uste dut. Nire ustez, geu gara arintasuna eta japoniaritasuna sorrarazi nahi dugun horiek eta haiek, berriz, badirudi erreferentzia sendoak, batzuetan barrokoak, bilatu nahi dituzela. Aberastasuna elkarren arteko delako uste dut... nahiz eta, baieztatzen ausartuko naiz, geu izan irabazten ateratzen garenak eta aipatu dizun lankidetzara hori pribilegio bat bezala bizi dugun horiek. Norihiko Danek beste inongo arkitektoengana ezagutzen ez dudana dotoreziaren ekarpena egiten du; Takayuki Miyoshik argia eta transparentziak lantzen ditu, mendebaldar batekin lortu ezin duen sentikortasunez.

Japanese traditions are based on abstract concepts like "engawa", "ma" or "wabi-sabi" that are difficult to understand in a "word" based culture like ours. But, they are responsible for the type of aesthetics we recognise as Japanese architecture...

The truth is they are concepts that are fairly unknown to the last few generations of Japanese who prefer to look towards the West and the American way of life. However, they still form part of a cultural substratum that these generations are perhaps unaware of and that architects like Norihiko Dan, Shigeru Ban, Kazuyo Sejima and so many others are trying to rescue and integrate with what they have learned from the West. The idealised notion we have of the current Japan is not quite the real thing either, that image of everything totally over the top, illuminated by neon lights and plagued with mirrors, the kitsch of the pachinko centres... Western minimalism seems to want to send us back to Zen and renunciation, an austere form of design that has plenty to do with the Romanic design of mediaeval monasteries. The difference is that the Japanese have delved deeply into the aesthetics that revolve around sensations.

Your studio has collaborated with several Japanese architects like Takayuki Miyoshi (currently collaborating with Toyo Ito) or Norihiko Dan. What are these exchanges of ideas with a culture like the Japanese one like?

It all forms part of a process of permanent dialogue based on a profound friendship and how well we tune into each other. Sometimes people ask how you can notice the Japanese or European touch in the work we do together... and I honestly think there's a hybrid there, and it's us who try to introduce fickleness and Japanese-ness and it's them who try to introduce solid and sometimes Baroque references into the work we do. I think the enrichment is mutual... although I'd go as far as to say that we get more out of it than they do. We consider the different collaborations as a privilege to be referred to. Norihiko Dan comes up with an elegance that I have never seen in any other architect; Takayuki Miyoshi lives light and transparencies with a sensitiveness that no Westerner can come close to.

# 3SESENTA



GONY ZUBIZARRETA

MUNDUJULO TXAPOLDUNA  
CAMPEON DEL FONDO JUNIOR  
WORLD CHAMPION

UN VIAJE DIFERENTE

LAS MALDIVAS DESCONOCIDAS

ZARAUTZ. VERANO DEL 68

DE ASTURIES Y ASTURES

AÑO 16 Nº 88 - 3,95E

ARGENTINA: 9 \$ MEXICO: N \$ 43

PORTUGAL: 840 (CONT. ESC.)

COSTA RICA 1.200 € PERU: 23 SOLES

[WWW.3SESENTA.COM](http://WWW.3SESENTA.COM)

«ZINEMALDIAN, VERTIGO-KO KREDITU  
TITULUAK TXALOTU NITUEN NIK.  
JENDEAK JAKIN ZEZAN HORI ERE  
TXALOTU BEHAR ZELA»

## iván zulueta, irudi banpiroa image vampire



Hipermerkaturan, "guztiak 2 eurotan" jartzen zuen kartel baten azpiko kaxa metaliko haundi batean topatu nuen, Jackie Chan-en pelikula zaharren artean. "Un dos tres al escondite inglés". 1969an Iván Zuluetak filmatu zuen dibertimendu psico-pop-delicoa. Eta Zinemaldian "Arrebato" ikusi nueneko gau hura etorri zitzaidan burura. Zinetik atera eta pelikula gustatu zitzaidan ala ez erabakitzea kostatu zitzaidan. Gutxitan izaten dut sentsazio hori. Egun, nire kuttunetakoa den David Lynch-en "Blue Velvet" (Terciopelo Azul) ikusi nuenean gauza bera sentitu nuen.

Iván Zulueta, zinearekin (eta beste hainbat gauzekin) jolastu zitekeen garaietako azken kamikazea da. Egun gertatzen ez den bezala, zinea, jolaserako eta arriskurako tresna gisa erabili izana eskertu behar zaio. Zulueta irudi manipulatzaileria da. Irudiak jaso eta bere egiten ditu. Banpirizatu. Batzuetan zeluloide banpirizazio horren emaitza trebea eta interesgarria da. Beste batzuetan ez hainbeste. Jolas guztietan dago gozatzeko edo aspertzeko aukera. Iván Zulueta, kultuzko egilea bihurtu da. Bere biografiak markatu du bere obra. Eta bedeinkapen /maldizio horri ezingo dio ihesik egin Nosferatu moderno honek.

I found it lying amongst old Jackie Chan films in a big metal box marked "2 Euro" in a supermarket. "Un dos tres al escondite inglés". Psyche-pop-delic entertainment filmed by Iván Zulueta. It reminded me of that night I saw "Arrebato" at Zinemaldia. I remember leaving the cinema and it taking me quite a while to decide if I had liked the film or not. I very rarely get that sensation. I remember feeling the same after seeing "Blue Velvet" by one of the directors I'm most fond of nowadays; David Lynch.

Iván Zulueta is the last-surviving kamikaze from a time when people could play around with cinema (as well as a few other things). He should be thanked for having used cinema to play and be risky with, something that doesn't happen nowadays. Zulueta manipulates images. He captures them and makes them his own, just like a vampire does. Sometimes his bloodsucking treatment of images is quite skilful and interesting. Other times it's not. All his games can both entertain and bore you. Iván Zulueta has become a bit of a cult figure these days. His life has conditioned his work. This modern-day Nosferatu will never be able to get away from that blessing/curse.



Iván Zulueta-ren lan grafikoari eskaini zaion erakusketak merezi du. Eta erakusketaren katalogo-liburu ikusgarrian elkarrizketa sekuentziatu baten testigu izateaz gain bere etxeko hauts edredoiatik berreskuratutako zirriborroak, argazkiak, komikiak, pelikuletako afitxak eta pintzelada inprobisatuak topatuko ditugu. Aurrerantzean gainera, Zulueta-ren filmografia bideoan ikusteko aukera ere izango da KM kulturunean. (Koldo Mitxelena Kulturunean 02/09/17tik 02/10/31rarte).

A visit to the exhibition of Iván Zulueta's graphic work is certainly worth the effort. Apart from the spectacularly sequenced interview in the catalogue, you get the chance to see some rough sketches, photos, comics, film posters and improvised drawings reclaimed from the dusty vaults of his house. All his films can also be seen on video at the Koldo Mitxelena Kulturunea. (From the 17/9/02 to the 31/10/02 at KM Kulturunea)

enigmaimagen

# marie-leontine tsibinda afrikako poeta bat

Marie-Leontine Tsibinda Kongo-Brazzavillen jaio zen 1955an. Bost poema liburu idatzi ditu. Tsibindaren herrialde berekoa zen Sony Labou Tansi, belaualdi bat lehenago Afrika frankofonoko literatura goitik behera aldatu zuen idazlea. 1979an argitara eman zuen “La vie et demie” nobela modernitatearen hasiera da askorekiko. Marie-Léontine Tsibinda, Werewere Liking, Ananda Levi, Véronique Tadjo eta Tanella Boni izan dira emakumearen ikuspegia lantzen aitzindariak. Banakoa eta gizartearen arteko gatazkak ageri dira haien poemetan: erbestea, gorputzari loturiko arazoak, errito zaharrak, derrigorrezko ezkontza eta amatasuna... Lurretik jaso duten ahozko tradizioa esker ga eta mendebaldeko kulturaren eragina bateratu nahia.

## AMA

Badakizu ama  
oraindik ere amets egiten dut zurekin  
oraindik ere zurekin amets  
nola opor handietan  
oinez egin dugun elkarrekin  
elkarrekin errepidean  
errepide harritsu eta bihurgune makurretan zehar  
bihurgune makurretan zehar, elkarrekin  
ez geunden bakarrik  
badakizu ama isiltasunak  
bidelagun zuhurrak  
errezel misteriotu batekin estaltzen gintuen  
zure urratsek, emakume txiki batenak,  
izar uxoa baten pentsarazten zidaten  
izar uxoa, aurora  
Girardeko zeru izarratuan  
oinez egiten zenuen eta ni zure itzal fidela  
itzal fidela, zure atzetik  
zure atzetik eta zurekin egotearren pozik...

## NEGAR BATEAN EMAKUMEA

Gelan nago bakarrik  
eguzkia txorien kantua.

Badatoz azterketak, ez dakit zer egin, zer esan.

Hala ere, ondo baino hobeto dakit lan egin behar dudala.  
Tamelez, ahaleginaren haizeak ez ditu nire belak hanpatzen!

Poza eta tristura  
hain daude nigan batuak ze ezin ditut banandu.  
Orduan leihorearen barrote artetik, kalea datorkit  
gizonak, umeak, bizikletak  
pasantean, korrika, ziztuán.

Badatoz azterketak, ez dakit zer egin, zer esan.

Aguakateondoaren hosto berdeek ditzira egiten dute maiatzeko eguzkia.  
Bat-batean oihu batek urratu du haizea, emakume bat.  
Haren adats, bular eta besoak haizeari erreguka ari dira  
bi gizon grisek daramate, isilik.

Negar egiten du: “bandeko, bebe a boyi n’gai o  
natikali n’gai moko o o, nasala nini oo”

Emakumearen ahotsa itzali egin da aparte  
harentzat maiatzeko eguzkia dutxa hotza da.

Atx! Arantza bat sartu zait bihotzean!  
emakume harekin bat egin du nire arimak.

Tristura pozari gailendu zaio.  
Badatoz azterketak, ez dakit zer egin, zer esan.  
Negar batean emakumea.

## MAMUEN EGUNSENTIA

Egunguentia sorginkerietatik  
libratu orduko  
jo du  
hil-ez kilak.

oinotsak, garrasiak, bozak  
entzuten dira  
egunguentia  
euriak zauritua  
triste zabaldu da

Lapurra! Lapurra!  
geldi hor geldi hor  
amuek ez al dute  
dagoeneko balio?

balak txistuka  
makilak joka  
arnasestuka  
gizona odolustutzen  
gupidagabe  
egurra

-Komisario jauna  
gizon bat hilzorian dago (eguzkia  
ateratzen ari den bitartean...  
Ordu berean hil behar al dugu denok?)

-Zer nahi duzu nik egitea?

-No...!a?

-Auzo-lapurra ez da pertsona.  
Zoaz lasai lotara. Lapur bat gutxiago, zer du txarrik horrek?  
Autoak ez dabilta. Ez dago fuelik...

-Erizainok, begira...

-Ospitalean botika faltan gabilta. Ni ez noa inora.  
Beranduegi da...

Euliek hasi dute gaubeila.

# marie-leontine tsibinda an african poet

Marie-Leontine Tsibinda was born in Congo-Brazzaville in 1955. She has written five books of poetry. Sony Labou Tansi, the writer who had set literature written in French in Africa on its head a generation before, was from the same part of the world as Tsibinda. The novel *La vie et demie*, published in 1979, is regarded by many as the beginning of modernity. Marie-Leontine Tsibinda, Werewere Liking, Ananda Levi, Veronique Tadjou and Tanella Boni are those writers who have written from women's point of view the longest. The conflicts between the individual and society are strongly present in their poems. Banishment, troubles with our physical being, ancient rites, forced marriages and motherhood... They have inherited an oral tradition and have tried to combine it with the influences brought by western culture.

## MOTHER

You know mother  
that I still dream of you  
still dream of you and  
how we walked together  
on great feast days  
how we walked together  
on those rocky and twisting roads  
together along the nasty twisting road  
we were not alone  
you know mother that silence  
is a wise companion that  
covered us in a mysterious blanket of mistrust  
your steps, those of a small woman,  
conjured me up the image of a starry dove  
a starry dove, aurora  
in the star-filled sky over Girarde  
you walked and I your trustworthy shadow  
your trustworthy shadow, I followed you  
I followed and was happy in your presence.

## A WOMAN IN TEARS

I am alone in the room  
the song of the sunbirds.

The exams are on their way, I don't know what to do, what to say.

Nonetheless, I know too well that I must work.  
Unfortunately, the winds of effort do not swell my ears!

Happiness and sadness  
are so joined in me that I cannot separate them.  
It is then that through the bars of my window, the street comes to me,  
men, children, bicycles  
passing, running, in a flash.

The exams are on their way, I don't know what to do, what to say.

The leaves of the avocado pear tree shine in the May sun.  
Suddenly, a shriek wails across the wind, a woman.  
Her scalp, breasts and arms beg the wind  
as two men, in silence, drag her away.

She cries: "bandeko; bebe a boyi n'gai o  
natikali n'gai moko o o, nasala nini oo"

The woman's voice dies away  
the May sun is but a cold shower to her.

Agh! A thorn has pierced my heart!  
my soul has become one with the woman.

Sadness overcomes happiness.  
The exams are on their way, I don't know what to do, what to say.  
A woman in tears.

## THE DAWNING OF PHANTOMS

Just as the dawning frees  
itself from witchcraft  
the death bells  
ring out.

footsteps, screams, voices  
are to be heard  
dawn  
wounded by rain  
comes on us sadly

Thief! Thief!  
stop! don't move!  
are hooks not worth  
what they used to be?

whistling bullets  
beating sticks  
caught for breath  
a man bleeding  
mercilessly  
thumping

- Officer, sir  
a man is dying (as the sun rises...  
must we all die at the same time?)

- What do you want me to do?

- Wh...at?

- A local thief is not a person.  
Go and sleep at ease. One thief less. What's so bad about that?  
The cars not working. There's no petrol...

- Look, nurse

- We're short of medicine here at the hospital. I'm not going anywhere.  
It's too late....

The flies intone the wake.

## nola demontre irakurtzen dira mangak?

Aspalditik hasi dira gurera komiki japoniarrak heltzen. Telebistan dragoi bola irentsi genuen belaunaldia jada ez gara horren ume, eta mangak gero eta ezagunagoak dira jendartearen. Japonen erlazio zuzena dago marrazki bizidun eta komikien artean, asko eta asko lehenengo komiki eta geroxeago marrazki bizidunak izanak baitira. Haatik, komikiek marrazki bizidunek ez duten oztopo bat aurkezten dute bere inportazio prozesuan, japoniarrek eskuinetik ezkerre irakurtzen baitituzte komikiak; eta gu ez.


Hasiera batean arazo honek ez zuen irakurleengan oztoporik suposatzen, komiki japoniarrak gurera ezkerretik eskuinera irakurtzeko prest heltzen ziren, eta ez zen inongo arazorik aurreikusten. Geroxeago berriz komikiak bere jatorrizko eran hasi ziren argitaratzen eta orduan galdera sortu zen... baino orain arte ezkerretik eskuinera irakurtzen bagenituen, eta berez eskuinetik ezkerre sortuak badira, nola demontre ematen zaio buelta honi?

Erantzuna erraza da, komikiak islatuak ematen ziren argitara. Orrialdeari aurrez aurre ispilu bat jarriko baliote bezala ispiluan irakurri ahal izateko. Horrela hartzen zuen mendebaldean ohikoa den norabidea. Modu honek, alta, ez ditu marrazkilariak oso pozik uzten. Askok barre egin dugu txikitari marrazkia egina genuen paperari buelta eman eta argiaren kontra begiratzerakoan marrazkia deformatua ematen zuenean. Ordurarte, proportzionatua eta nahiko simetrikoa ematen zuen aurpegi baten marrazkiak, adibidez, izugarrizko desitxuraketa pairatzen zuten. Hau dela eta marrazkilari japoniar askok beraien marrazkiak jatorrizko norabidean argitara eman daitezen eskatzen dute, marrazkiak deformatuak daudela eman ez dezan.

Orain mendebaldeko irakurleok komikiak eskuinetik ezkerre irakurtzen hasi gara. Eta egia esan, orrialde batzuk irakurri ondoren honek ez du inongo arazorik suposatzen, nahiko azkar harrapatzen baita erronka txiki hau. Beraz, irakurketaren norabidearen erlatibotasuna agerian uzten da, beste norabide askorena bezala.

japonen  
in japan

1	
3	2
5	4
6	



testua / by: txo!?



**blood: azkeneko banpiroa**

Beste hau, tomo bakarrekoa, berekoa duten japoniarren norabidean dugu ere. Hainbat pelikula eta merkatu aferetan islatutako Blood pertsonaiaren errebisio definitibo bezala etortzen zaigu. Ez zenuela ezagutzen? Ezta ni ere, baino ezagutu beharrik ez da komiki honetaz gozatzeko. Banpiroen mitoari beste ikuspuntu bat gehitzen dio, genetika berriekin nahastuz, eta gaur egungo kulturaren kokatuz, sexu dosi txikiarekin eta saihestu ezin daitekeen bortizkeriaz lagundua. Azkenean, haatik, komiki japoniar askoetan bezala pertsonaiaren identitateak eta nondik norakoek hartzen dute garrantzia.

**blood: the last vampire**

This one, one tome only, has also been published in the original Japanese style. It comes across as being the definitive revision of the character Blood who has been portrayed in many a film and suchlike editions. You've never heard of him? Me neither, but that won't stop you enjoying this comic. It's another angle on the whole vampire myth that mixes modern genetics, an updated focus on vampires, a dash of sex and the inevitable violence that surrounds the whole legend. Nonetheless, and as is usual in the case of Japanese comics, the comings and goings and personal identity of the character are the most important elements of the story.


## how on earth do you read manga comics?

Japanese comics have been here amongst us for years now. Those of us who gobbled down Dragon Ball as kids aren't kids anymore and Manga Comics are becoming more and more known over here. There's a direct relationship between comics and cartoons in Japan. Many start off as comics and later end up as cartoons. Nevertheless, comics have one disadvantage that cartoons don't have when it comes to being exported over to our neck of the woods; the Japanese read comics from right to left and we don't.

In the beginning it wasn't really an obstacle to the reader because Japanese comics were adopted so that people over here could read them from left to right. No problem so! The thing is that later on they started publishing the comics in their original format and the great question sprang up...but, if until now we have been reading the comics from left to right, and the comics themselves are supposed to be from right to left, how on earth do you change it round?

The answer is easy. The comics were published in "reflected" form. It's as if they put a mirror up against the page so you could read the reflection. That way it becomes readable to people here in the West. The artists, however, are not very happy with this. Lots of us had a great laugh as children when we drew something on a piece of paper, turned it over, held it up to the light and saw the deformed version of the drawing through the other side. The drawing, which until then had appeared all right as far as proportion and symmetry were concerned, suffered a terrible disfiguration. That's why many Japanese artists demand that their work be published as it is originally drawn. That way their drawings don't suffer any form of distortion.

Readers here in the West have therefore started to read comics from right to left. Truth be told, after reading a couple of pages you find that there's really nothing to it. You pick it up fairly easily. That way, as happens in many other cases, the relativity of how you read is clear for all to see.



mendebaldean  
in the west



### nausicaa del valle del viento

Gaur egun eskuinetik ezkerre irakurri ahal izateko argitaratuak ditugun komikien artean hauxe da gure arreta gehien merezi duen komikietariko bat, nahiko luzea bera, sei tomoetan banatuak dauden 1.200 orrialde baititu. Europan nahiko entzuna izaten hasia den Hayao Miyazaki marrazkilaria eta animatzaileak idatzi eta marraztuta dago (Chihiroren Bidaia "Spirited away" egile honetako azkeneko pelikulak Berlineko Hartza jaso du berriki eta Donostiako Zinemaldian izan zen ikusgai). Hemen, erabat osatua dagoen unibertsoa aurkezten zaigu non fikziozko herrialde, kultura, arraza, natura eta fauna anitza islatzen dira, izaera ekologiko nabarmen batek lagundua. Batzuetan, Miyazaki marrazkilaria honek "Heidi" marrazki bizidunetako egiletariko bat izan zela gogora ekarriko dizula lan honek. Baietz, hala ere, egunotan telebistatik aldendu eta seigarren tomoa bukatutakoan zazpigarrena egin ez izana penatuko zaituela!

### nausicaa from the valley of the wind

We have chosen this example of comics published to be read from right to left as we feel it to be one of the best available at present. It's rather long; 1,200 pages divided into six comic books. The person responsible for the script and drawings in the comic is the artist and animator Hayao Miyazaki, his name is cropping up more and more in European circles. He made "Chihiro's Journey: Spirited Away" and his last film was awarded the Berlin Bear. It was also screened at Zinemaldia. In this comic he has come up with a whole new universe with its own make-believe countries, cultures, races, nature and numerous fauna. The whole thing is laced with a strong ecological overtone. The comic also reminds us that Miyazaki was one of the artists involved in the "Heidi" cartoons. All the same, I bet you my last buck that it'll keep you away from the TV and that by the time you finish you'll be sorry there's no seventh part.

izenburua / title : GNU.....Oα

hizkuntza: Euskara

testua:

Lehendabizi, ez ditugu nahastu behar doan banatzen diren programak, eta kode irekiko programak. Izan ere, informatika programa batzuk ordaindu gabe jaso daitezke (adibidez, internetetik hartutako freewarea) baina programa itxiak dira; hor dira, esate baterako, Microsoft etxearen nabigatzaileak (Internet Explorer). Aldiz, beste programa batzuk, euskaraz ere GNU bezala ezagutzen direnak, normalki doan banatzeaz gain, kode irekikoak dira: programa ibilarazten duten kodeak, barruko tripak, agerian jartzen ditu egileak, nahita. Horrela, hartaz dakien orok kode horietan oinarri harturik, programa bere gisara aldatu edo erabil dezake. Horren adibide ezagunena, beharbada, Linux sistema eragilea da. Gaur, interneten bitartez kode irekiko programak, era guztietakoak, asko ari dira garatzen, sareak lana ikaragarri errazten du. Hau guztia Gotzon Egiak kontatu digu, Euskara zerbitzuko burua Gipuzkoako Aldundian.

Gaur esan daiteke era guztietako aplikazioak direla kode irekian eginak. Urrutira gabe, Windows-eko plataformatik atera gabe, ofimatan erabiltzen diren tresna arruntak (testu trataera, kalkulu orria, datu baseak, eta abar) kode irekiko eta doaneko software batean oinarritzen dira, OpenOffice izeneko internetetik har daiteke, eta ordenagailuan ezarri, zentimorik ordaindu gabe. Eta euskara? Zertan da euskara esparru honetan? Emaizta ikusgarririk ez omen dago, baina bide itxaropentsua zabaltzen zaigula ematen du. Arlo honetan lanean ari diren Code & Syntax enpresakoekin harremanetan jarri eta euskararen presentzia oraindik ere «marjinala» dela esaten digute. Enpresa honetan, besteak beste, interneterako softwarea eta aplikazioak egiten dituzte. Berezituta daude edukia kudeatzeko sistemetan (ingelesez content management systems edo CMS), webguneetan eta software aplikazioetan eleaniztasuna bermatzeko injenierutzan. Eleaniztasunaren gaiari arreta ematen zaio, baina ez proiektu eta produktu guztietan, eta askotan zaila ei da software zehatz bat hizkuntza jakin baten parametroetara moldatzea.

Edozein modutan, hizkuntza txiki zein handietarako aplikazioak garatzeko aukerak handiagoak dira software librearekin, software jabearen eskema itxietan baino. Euskararen egoera ere, beraz, hortxe. Badaude linux-ero batzuk hortik zehar, eta ahailegin subentzionatu batzuk bideratu dira, proiektu handiak euskaratzeko (Mandrake Linux edo OpenOffice). Code & Sintaxen hurbilpen sinpleagoa dute «baina gure ustez eraginkorragoa dena, hau da, egitura konplexuak euskaratu beharrean, guk darabilgun azpiegituran (Zope) euskara integartzeko moduluak garatuz, unean unean produktu oso indartsuak sortzeko gauza garela erakutsi dugu: weblog sistema euskaratuak, bilaketak euskaraz guneetan, euskara/gaztelania elebitasuna primeran maneiatzen duten guneak...»

Hemen, The Balderen etxean bertan, arlo honetan ere lanean dagoen Eragin enpresaren ustetan, softwarearen negozioren ildoan errotik aldatu behar omen da, software libreko negozioa oinarritzen baitu bai programazioan bai zerbitzuan. Programazioaren aldetik, software libreko lehen mailako logika erabiltzen du. Programa bat egiteko, ez da zerotik abiatu beharrik, baizik eta gainontzekoen lanetik abiatzen zarela. Honi esker, helburu handiak epe motz eta baliabide urriekin lortzen ahal dira. Hortaz, programazio aldetik, diru iturriak hortik datoz, gauza berriak garatzen eta dagoena kasu konkretuetara egokitzen. Software jabearen negozioa bestelakoa omen da Eraginekoren ustetan. «Aplikazioa behin garatu eta ahalik eta jende gehienari saltzen saiatzen dira. Baina hor erabiltzaileak erabat esku lotuta gelditzen dira. Haiek ezin dute programa hobetu edo eraldatu, eta nolabait programari egokitu behar dioten euren burua. Bestalde, Software librean etengabeko zerbitzua dago, izan ere bai programak bai erabiltzaileak aldatzen dira, beraz hor ezinbestekoa da etengabe softwarea egokitzen».

Gotzon Egiak azpimarratzen du, bukatzeko, orain arte abiarazi diren egitasmoak bi bidetatik joan dira: edo gauza guztiz pribatuak izan dira, jende multzo baten indar soilez egindakoak (adibidez, Visual IRC 97, Igor Aiestaranek euskaratua), edo bide ofizialetik egin dira (esate baterako, Gnome-ko zati gehienak Eusko Jaurlaritzaren diruaz ari dira itzultzen, UZEI eta Elhuyar). «Iruditzen zait badirela mugak eta ezintasunak bi bideotan: alde batetik, jendeak bakarka ezin du gauza handirik egin; bestetik, laguntza ofizialak ezin dira era horretan bideratu. Kontua zer da, adibidez Gnome euskaraz izatea? Eta gero zer? Zer egingo du Jaurlaritzak horrekin? Eskoletan ikasleek erabiliko dituzten ordenagailuetan Linux jarriko dute, Windows izan ordez? Iruditzen zait hor nahasmen handi samarra dagoela. Kode irekiko softwarea behar dugu, baina erabiltzeko! Gainera, zer egiten du Eusko Jaurlaritzak, esku batekin Linux euskaratzen lagundu, eta bestearekin etengabe software lizentziadunak kontratatzen baditu bere administrazioa kudeatzeko?»



Search



language: **English**

text:

